

Estatistika Inferentziala R software librea erabiliz

R eta Rstudio:
ezaugarri nagusiak

*Artxibo honetako irudi
guztiak irakasle taldeak
prestatutako irudi propioak
dira.

Eneko Arrospide, Gorka Bidegain, Xabier Erdocia, Aitziber Unzueta



AURKIBIDEA

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Leihoak
- 1.3. Oinarritzko ezagutza
- 1.4. Datu-egitura (bektoreak eta data markoak)
- 1.5. Funtzioak
- 1.6. Grafikoak
- 1.7. Paketeak
- 1.8. Lan direktorioa
- 1.9. Fitxategi batetik datuak irakurri
- 1.10. Datu-markoak fitxategi batean gorde



1.1. Sarrera





- Konputazio estatistikorako eta datuak grafiko bidez bistaratzeko erabiltzen den programazio-lengoaia doakoa eta indartsua da. Windows, MAC OSX eta Linux-ekin bateragarria da.
- R GNU Lizentzia Publiko Orokorraren (GNU General Public License o GPL) baldintzaapean eskuragarri dago. Beraz, R libreki eta doan banatu, kopiatu eta erabil daiteke.
- R-ren oinarritzko instalazioak hainbat funtziot ditu datuak importatzeko eta eraldatzeko, modelo estatistikoak ebaluatzeko, datuak irudikatzeko, etab. Ataza berriak egiteko funtziot edo kode berriak (paketek) behar badira, R-k ematen duen erraztasuna handia da.



- R programarako Garapen Integratuko Ingurunea (IDE) bat da. Rstudiok diseinatutako plataforma aldagaiak aldatu, paketeak kargatu, R-ri buruzko laguntza eskatu edo irudiak bistaratu bezalako ekintzak oso erraz egiten dira.



1.2. Leihokoak




Leihoak

1 Kontsola

2 Ingurunea + Historia

3 Fitxategiak + Irudiak + + Paketeak + Laguntza


4 Script-en editorea + datuen nabigatzailea



Leihoak

1 Kotsola

- R bakarrik instalatzen badugu, izango dugun leiho bakarra da.
- Kotsolan ordenagailuan idatzitako aginduak (komandoak) ebaluatzen edo balioztatzen dira.
- Gezia (>) agertzen bada, programa prest dago kodigoa irakurtzeko.
- Rstudio ez badugu instalatzen, guztia (laguntza eskatu, paketeak kargatu, etab.) kotsolan komando bidez egin beharko genuke.



The screenshot shows an R console window with the following session:

```
Console Terminal × Jobs ×
R 4.1.2 · ~/Add-in Express/ ↗
> altuera<-c(1.75,1.68,1.78,1.83,1.81,1.91)
> adina<-c(22,21,25,23,22,24)
> erantzuna<-c("Ez","Bai","ED/EE","Bai","Ez","Ez")
> datuak<-data.frame(altuera,adina,erantzuna)
> stem(altuera,scale=0.5)

The decimal point is 1 digit(s) to the left of the |

16 | 8
17 | 58
18 | 13
19 | 1

> barplot(altuera)
> pie(table(erantzuna))
> 5+4
[1] 9
> x<-log10(1000)
> |
```



Leihoak

2

Ingurunea + Historia

Ingurunea:

Gordetako aldagaiak, zein aldagai mota den eta beraien balioak agertzen dira.

Historia:

Sesioan idatzitako komandoak agertzen dira. Ez dira emaitzak agertzen.

Environment		History	Connections
		Import Dataset	175 MiB
R			
Global Environment			List
			C
Data			
datuak		6 obs. of 3 variables	
Values			
adina		num [1:6] 22 21 25 23 22 24	
altuera		num [1:6] 1.75 1.68 1.78 1.83 1.81 1.91	
erantzuna		chr [1:6] "Ez" "Bai" "ED/EE" "Bai" "Ez" "Ez"	
x		3	

Environment History Connections

Import Dataset | Save | Brush | List | Search | C

```
altuera<-c(1.75,1.68,1.78,1.83,1.81,1.91)
adina<-c(22,21,25,23,22,24)
erantzuna<-c("Ez","Bai","ED/EE","Bai","Ez","Ez")
datuak<-data.frame(altuera,adina,erantzuna)
stem(altuera,scale=0.5)
barplot(altuera)
pie(table(erantzuna))
5+4
x<-log10(1000)
```




Leihoak

3

Fitxategiak + Irudiak + + Paketeak + Laguntza

Fitxategiak:

Lan direktorioan ditugun fitxategiak.






Irudiak:

Grafikatu ditugun irudi guztiak agertzen dira. Ezker-eskun geziekin irudi guztiak ditugu eskuragarri. Irudiak handitu (zoom) edo esportatu daitezke.

Paketeak:

Instalatutako paketeak agertzen dira.

Laguntza



Leihoak

4


Script-en editorea + datuen nabigatzailea

Script-en editorea:

Lehio honetan idatziko ditugu exekutatu nahi ditugun aginduen zerrenda. Agindu hauek .R fitxategi batean gorde daitezke.

Datuен nabigatzailea:


Ingurune fitxan definitutako datu-markoetan klikatuz, bere barnean dauden datuak agertzen dira.



```

1 altuera<-c(1.75,1.68,1.78,1.83,1.81,1.91)
2 adina<-c(22,21,25,23,22,24)
3 erantzuna<-c("Ez","Bai","ED/EE","Bai","Ez","Ez")
4 datuak<-data.frame(altuera,adina,erantzuna)
5 stem(altuera,scale=0.5)
6
7 barplot(altuera)
8 pie(table(erantzuna))
9
10 5+4
11 k<-log10(1000)
12 x
13
11:1 (Top Level) R Script

```



	altuera	adina	erantzuna
1	1.75	22	Ez
2	1.68	21	Bai
3	1.78	25	ED/EE
4	1.83	23	Bai
5	1.81	22	Ez
6	1.91	24	Ez

Showing 1 to 6 of 6 entries 3 total columns

1.3. Oinarrizko ezagutza



Eragiketa aritmetikoak: + , - , * , / , ^ , %/%, %%

- Eragiketen lehentasuna: Lehenengo parentesi barrukoak, gero berreketa eta erroketak, ondoren biderketak eta zatiketak. Amaitzeko, batuketa eta kenketak. Beti ezkerretik eskumara ebaluatzen da.

Eragiketa	Esanahia
+	Batuketa
-	Kenketa
*	Biderketa
/	Zatiketa
^	Berreketa
%/%	Zatiketaren zatidura
%%	Zatiketaren hondarra

```
> a<- 10 # a al dagai ari 10 balioa esleituko dio
> b<- 3 # b al dagai ari 3 balioa esleituko dio
> a+b
[1] 13
> a^b
[1] 1000
> a/b
[1] 3.333333
> a%/%b # zatiketaren zati dura kalkulatuko du
[1] 3
```



Aldagai motak

- Aldagaiaren izenak hizkiz, zenbakiz, puntuz edo azpimarrez osatuta egon daitezke. Hizki edo puntu batekin has daitezke, baina puntu batekin hasten badira ezin da zenbaki batekin jarraitu.

Aldagai mota	Esanahia
Numeric	Zenbaki errealkak
Integer	Zenbaki osoak
Complex	Zenbaki konplexuak
Character	Karaktereak
Logical	Aldagai logikoak: TRUE edo FALSE

```
> x1 <- c(1:20); class(x1)
[1] "integer"
> x2<- class(c(1, 1, 2, 3)) ; class(x2)
[1] "numeric"
> x3<- c("Arkaitz", "Ziortza", "Unai ", "Amai a", "Eider")
> class(x3)
[1] "character"
> x4<- c(FALSE, TRUE, FALSE, TRUE) ; class(x4)
[1] "logical"
> x5 <- c(3, "Jon", 8, 3, 23, 0, 1) ; class(x5)
[1] "character"
> x5 # balio bat karakterea da, guztia karaktere bi hurtzen dira.
[1] "3"    "Jon"   "8"    "3"    "23"   "0"    "1"
```



Eragiketa logikoak: > , >= , < , >= , == , & , |

Eragiketa	Esanahia
>	handiago
>=	handiago edo berdin
<	txikiago
<=	txikiago edo berdin
==	berdin
!=	desberdin
&	eta
	edo

```
> a<- 10; b<- 5; c<- 2 # agindu anitz 1erro bakarrean ;
erabiliz
```

```
> a==b
[1] FALSE
> a==5 | b<a
[1] TRUE
> c != 3
[1] TRUE
> a!=b & b!=c
[1] TRUE
```

Funtzio aritmetikoak

Funtzioa	Esanahia
<code>log2(x)</code>	x-ren logaritmo bitarra
<code>log10(x)</code>	x-ren logaritmo hamartarra
<code>log(x,b)</code>	x-ren logaritmoa b oinarrian
<code>exp(x)</code>	x-ren esponentziala
<code>abs(x)</code>	x-ren balio absolutua
<code>sqrt(x)</code>	x-ren erro karratua
<code>cos(x)</code>	x-ren kosinua (x radianetan)
<code>sin(x)</code>	x-ren sinua (x radianetan)
<code>tan(x)</code>	x-ren tangentea (x radianetan)

```
> sin(pi)    # funtzio trigonometrikoak
[1] 1.224606e-16
> log(3)    # logaritmo nepertarra
[1] 1.098612
> log(100, base=10)
[1] 2
> sqrt(4)   # erro karratua
[1] 2
> pow(6, 3)
[1] 216
> abs(-20)  # balio absolutua
[1] 20
> cos(0)
[1] 1
```

Oinarrizko aginduak

Agindua	Esanahia
<code>getwd()</code>	Lan direktorioa erakutsiko du
<code>setwd("bidea/direktorioa")</code>	Lan-direktorioa zehatztuko du
<code>ls()</code>	Lan-direktorioan ditugun objektuak zerrendatuko ditu
<code>dir()</code>	Lan-direktorioko karpeta eta fitxategiak erakutsiko ditu
<code>rm(objetua)</code>	lan-direktorioko <i>objektua</i> ezabatuko du
<code>history()</code>	Exekutatutako aginduak erakutsiko ditu
<code>help(objektua)</code>	<i>objektua</i> -ren laguntza emango du
<code>?objektua</code>	<i>objektua</i> -ren laguntza emango du
<code>install.packages("objektua")</code>	<i>objektua</i> paketea instalatuko du
<code>library("objektua")</code>	<i>objektua</i> paketea memorian kargatuko du



Estatistika deskribatzailerako funtzioak

Funtzioa	Esanahia
<code>mean(x)</code>	x-ko elementuen batazbestekoa
<code>median(x)</code>	x-ko elementuen mediana
<code>quantile(x,prob)</code>	<i>prob</i> probabilitateari dagokion x-ko kuantila
<code>var(x)</code>	x-ko elementuen kuasibariantza
<code>sd(x)</code>	x-ko elementuen kuasidesbiderazio tipikoa
<code>cov(x, y)</code>	x eta y-ren arteko kobariantza
<code>summary(x)</code>	x-ko elementuen laburpena emango du (minimoa, 1. kuartila, mediana, batazbestekoa, 3. kuartila eta maximoa)
<code>boxplot.stats(x)\$out</code>	x-ko elementuen balio arraroak



Estatistika deskribatzailerako funtzioak

Funtzioa	Esanahia
max(x)	x-ko elementuetatik maximoa
min(x)	x-ko elementuetatik minimoa
range(x)	x-ko elementu minimoa eta maximoa
sum(x)	x-ko elementu guztien batura
prod(x)	x-ko elementu guztien biderkadura
diff(x)	x-ko elementuen arteko diferentziak
cumsum(x)	x-ko elementuen batura metatua
sort(x)	x-ko elementuak ordena gorakorrean ordenatuko ditu
table(x)	x-ko elementuen balio desberdinak eta beraien maiztasun absolutua dituen taula itzuliko du
round(x)	x-ko elementuak borobilduko ditu



1.4. Datu-egitura (bektoreak eta datu-markoak)



Bektoreak

- Dimentsio bakarra eta datu mota bera dituen datu-egitura. Bektoreak sortzeko aukera anitz daude:

Bektoreak sortzea

- **c()**: bere osagaiak kateatu egiten ditu, bektore bat sortuz

```
> x1 <- c(1:20) ; x1  
[1] 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20
```

- **scan()**: teklatuz sartutako objetuak kateatuko ditu, bektore bat sortuz

```
> diferenzi <- scan()
```

```
1: 1.2  
2: 0.6  
3: 2.4  
4: 1.1  
5: 0.9  
6:
```

```
Read 5 items
```



- **seq()**: elementu-segida bat sortzen du. Funtzio hau bi eratara erabil daiteke: urratsaren tamaina ezarriz **by** parametroarekin edo bektorearen luzera zehatztuz **length** parametroarekin

```
> seq(1, 15, by=2) # edo seq(1, 15, 2). Segi daren lehen elementua 1 izango da, azkena  
15 eta urratza 2  
[1] 1 3 5 7 9 11 13 15  
> seq(1, 15, 7)  
[1] 1 8 15  
> seq(1, 15, length=5) # segi daren lehen elementua 1 izango da, azkena 15 eta luzera 5  
[1] 1.0 4.5 8.0 11.5 15.0
```

- **rep()**: patroi bat errepikatuz sortuko du bektorea
- ```
> rep(c("bai", "ez", "agian"), 2) # "bai" "ez" "agian" patroi a birritan errepikatu
[1] "bai" "ez" "agian" "bai" "ez" "agian"
> rep(c(1, 2, 3), c(1, 2, 3))
[1] 1 2 2 3 3 3
```

- **numeric()**: zeroz osatutako bektorea sortuko du

```
> numeric(10)
[1] 0 0 0 0 0 0 0 0 0 0
```




- : operadorea:

```
> 2:6 # eragile honek 2-tik 6-rako elementuekin bektore bat sortzen du eta z-ri esleitzen dio
[1] 2 3 4 5 6
```

- edit(): datu-bektore bat editatzen du

```
> datuak<- edit() # zabal tzen den lei hoan, ENTER erabili z, bektorearen elementuak sar dai tezke
```



**Bektore baten elementuak erauzi:** bektoreak indexatuta daude. Bektore baten elementu bat lortzeko, elementuaren posizioa adierazten duen zenbakia kako zuzenen artean idatziko da.

- x bektorea sortu,

```
> x<-seq(11, 101, 10) # 11tik 101ra eta urratsa=10
[1] 11 21 31 41 51 61 71 81 91 101
```

- x bektorearen 8. elementua erauzi

```
> x[8]
[1] 81
```

- x bektorearen lehenengo bost elementuak erauzi

```
> x[1:5]
[1] 11 21 31 41 51
```

- x bektorearen 4. 5. eta 8. elementuak erauzi

```
> x[c(4, 5, 8)]
[1] 41 51 81
```



**Bektore baten elementuak ezabatu:** kako zuzenen artean zenbaki negatiboak sartzen baditugu posizio horietan dauden elementuak ezabatuko dira

- x bektorearen 5. elementua ezabatu

```
> x[-5]
[1] 11 21 31 41 61 71 81 91 101
```

- x bektorearen 4. 5. eta 8. elementuak ezabatu

```
> x[-c(4, 5, 8)] # edo x[c(-4, -5, -8)]
[1] 11 21 31 61 71 91 101
```

### **Bektore baten elementuak gehitu edo aldatu**

- x bektorearen 1. elementua aldatu

```
> x[1] <- 11 # kasu honetan balio bera emango di ogu
[1] 11 21 31 41 51 61 71 81 91 101
```

- x bektorean 11. elementua gehitu 111 balioarekin

```
> x[11] <- 111
[1] 11 21 31 41 51 61 71 81 91 101 111
```



## Bektore baten elementuen erauzketa baldintzatua

- x-ren elementuak 25 baino txikiago edo 50 baino handiago dira?

> `x<25 | x>50`

```
[1] TRUE TRUE FALSE FALSE TRUE TRUE TRUE TRUE TRUE TRUE TRUE
```

- x-ren elementuak 50 baino handiagoak dira?

> `x>50`

```
[1] FALSE FALSE FALSE FALSE TRUE TRUE TRUE TRUE TRUE TRUE TRUE
```

- 50 baino handiagoak diren x-ren elementuen posizioak

> `whi ch(x>50)`

```
[1] 5 6 7 8 9 10 11
```

- 25 baino txikiago eta 50 baino handiago diren x-ren elementuen posizioak

> `whi ch(x<25 | x>50)`

```
[1] 1 2 5 6 7 8 9 10 11
```



## Bektore baten elementuen erauzketa baldintzatua

- 71 balioa duten x-ren elementuen posizioak  
    > `which(x==71)`  
    [1] 7
- x bektoretik 71 balioa duen elementua ezabatu  
    > `x[-which(x==71)]`  
    [1] 11 21 31 41 51 61 81 91 101 111
- x bektoretik 71 balioa duen elementua ezabatu  
    > `x[x!=71]`  
    [1] 11 21 31 41 51 61 81 91 101 111
- x bektoretik 71 balioa duen elementua ezabatu  
    > `subset(x, x!=71) # Definir tutako baldintza batzuen arabera bektore baten azpi multzoa  
 # batitzuli ko du`  
    [1] 11 21 31 41 51 61 81 91 101 111



## Bektore baten elementuen erauzketa baldintzatua

- 50 baino handiagoak diren x-ren elementuen balioak  
`> x[x>50] # edo subset(x , x>50)`  
[1] 51 61 71 81 91 101
- 50 baino handiagoak diren x-ren elementu kopurua  
`> length(x[x>50])`  
[1] 7
- 30 baino txikiago edo 70 baino handiago diren x-ren elementuen balioak  
`> x[x<30 | x>70] # edo subset(x, x<30 | x>70)`  
[1] 11 21 71 81 91 101 111
- 22 baino handiago eta 70 baino txikiago diren x-ren elementuen balioak  
`> x[x>22 & x<70] # edo subset(x, x>22 & x<70)`  
[1] 31 41 51 61
- 22 baino handiago eta 70 baino txikiago diren x-ren elementuen balioak  
`> length(x[x>22 & x<70])`  
[1] 4



## Bektore baten zehaztu gabeko elementuen kudeaketa

- Balio galduak dituen bektorea sortu

```
> x<- c(11, 21, NA, 41, NA, 61, 71, 81, NA, 101)
```

```
> x
```

```
[1] 11 21 NA 41 NA 61 71 81 NA 101
```

- Bektore bateko balio galduak zehaztu

```
> is.na(x)
```

```
[1] FALSE FALSE TRUE FALSE TRUE FALSE FALSE FALSE TRUE FALSE
```

- Bektore bateko balio galduen posizioak

```
> which(is.na(x))
```

```
[1] 3 5 9
```

- Balio galduak bektore batetik ezabatu

```
> x[!is.na(x)] # edo x[-which(is.na(x))]
```

```
[1] 11 21 41 61 71 81 101
```



## Bektore baten zehaztu gabeko elementuen kudeaketa

- Balio galduak dituen bektorearen elementuen batura

```
> sum(x, na.rm = TRUE) # edo sum(x[!is.na(x)]) edo sum(na.omit(x))
[1] 387
```

- Balio galduak dituen bektorearen elementuen biderkadura

```
> prod(x, na.rm = TRUE) # edo prod(x[!is.na(x)]) edo prod(na.omit(x))
[1] 335575629081
```

- Balio galduak dituen bektorearen elementuen batazbestekoa

```
> mean(x, na.rm = TRUE) # edo mean(x[!is.na(x)]) edo mean(na.omit(x))
[1] 387
```

- Balio galduak dituen bektorearen elementuen batura

```
> cumsum(na.omit(x)) # edo cumsum(x[!is.na(x)])
[1] 11 32 73 134 205 286 387
cumsum() funtzi oak ez du onartzen na.rm
```



## Bektore bateko balio arraroak

- **boxplot.stats()**: kutxa-diagramari buruzko informazioa bueltatzen du.

```
> boxplot.stats(c(17, 23, 21, 36, 21, 18, 19, 22, 35, 20, 25))
```

\$stats

```
[1] 17.0 19.5 21.0 24.0 25.0
```

\$n

```
[1] 11
```

\$conf

```
[1] 18.85625 23.14375
```

\$out

```
[1] 36 35
```

- **\$stats**: bost datu ematen ditu: beheko bibotearen muturra, lehen kuartila, mediana, hirugarren kuartila eta goiko bibotearen muturra.

- **\$n**: NA ez diren elementu kopurua.

- **\$conf**: medianaren konfidantza tartea (0.95 konfidantza maila). .

- **\$out**: bektorearen balio arraroak.



## Bektore baten elementuen balio arraroak

- **boxplot.stats()\$out**: balio arraroak bueltatzen ditu.  
`> x<- c(17, 23, 21, 36, 21, 18, 19, 22, 35, 20, 25)  
> boxplot.stats(x)$out  
[1] 36 35`
- Balio arraroen posizioak bektorean  
`> which(x %in% boxplot.stats(x)$out)  
[1] 4 9`
- Balio arraroak ezabatu  
`> x[-which(x %in% boxplot.stats(x)$out)]  
[1] 17 23 21 21 18 19 22 20 25`

## Datu-markoak

- Datu-markoak (data frame-ak) datuak gordetzeko objekturik erabiliena da
- Datu-marko baten errenkada bakoitzak lakinaren norbanakotzat edo behaketatzat har daiteke eta, zutabe bakoitzak norbanakoaren ezaugarri, atributu edo aldagai bat bezala
- Datu-marko baten zutabe bakoitzak mota ezberdinekoak (zenbakia, karakterea, ...) izan daitezke. Baino zutabe bereko elementu guztiak mota berekoak izan behar dira.

## Datu-markoa sortzea

- **data.frame()**: luzera berdineko bektoreekin datu-markoa sortzen du
- Honako adibidean, datu marku bat sortuko da 9 ikasleen adinarekin eta aljebraiko eta kalkuluko ikasgaietan izandako kalifikazioekin:

```
> adina <- c(18, 18, 19, 18, 20, 19, 18, 18, 18)
> aljebra <- c(4.2, 6.3, 5.8, 6.8, 7.3, 8.1, 3.5, 7.7, 6.5)
> kalkulua <- c(6.2, 3.3, 6.7, 5.2, 4.1, 7.8, 5.9, 7.1, 5.6)
> datuak <- data.frame(adina, aljebra, kalkulua)
```



> **datuak**

adi na alj ebra kal kul ua

|   |    |      |      |
|---|----|------|------|
| 1 | 18 | 4. 2 | 6. 2 |
| 2 | 18 | 6. 3 | 3. 3 |
| 3 | 19 | 5. 8 | 6. 7 |
| 4 | 18 | 6. 8 | 5. 2 |
| 5 | 20 | 7. 3 | 4. 1 |
| 6 | 19 | 8. 1 | 7. 8 |
| 7 | 18 | 3. 5 | 5. 9 |
| 8 | 18 | 7. 7 | 7. 1 |
| 9 | 18 | 6. 5 | 5. 6 |

▪ **rbind()**: norbanako (errenkada) berria gehitu du> **datuak<- rbind(datuak, c(18, 7. 2, 7. 4))**  
> **datuak**

adi na alj ebra kal kul ua

|    |     |      |      |
|----|-----|------|------|
| 1  | 18  | 4. 2 | 6. 2 |
|    | ... | ...  | ...  |
| 9  | 18  | 6. 5 | 5. 6 |
| 10 | 18  | 7. 2 | 7. 4 |



- **cbind()**: aldagai (zutabe) berria gehitu du

```
> gradua <- c("el ektroni ka", "el ektri ka", "mekani ka", "mekani ka", "el ektroni ka",
 "mekani ka", "mekani ka", "el ektri ka", "mekani ka", "mekani ka")
> datuak <- cbind(datuak, gradua)
> datuak
```

|    | adi na | al j ebra | kal kul ua | gradua        |
|----|--------|-----------|------------|---------------|
| 1  | 18     | 4. 2      | 6. 2       | el ektroni ka |
| 2  | 18     | 6. 3      | 3. 3       | el ektri ka   |
| 3  | 19     | 5. 8      | 6. 7       | mekani ka     |
| 4  | 18     | 6. 8      | 5. 2       | mekani ka     |
| 5  | 20     | 7. 3      | 4. 1       | el ektroni ka |
| 6  | 19     | 8. 1      | 7. 8       | mekani ka     |
| 7  | 18     | 3. 5      | 5. 9       | mekani ka     |
| 8  | 18     | 7. 7      | 7. 1       | el ektri ka   |
| 9  | 18     | 6. 5      | 5. 6       | mekani ka     |
| 10 | 18     | 7. 2      | 7. 4       | mekani ka     |

- **data()**: datu-markoa kargatuko du. Datu-marko batzuk erabiltzeko **data(datamarkoaren.izena)** kodearekin kargatu behar dira. Begiratu laguntzan IceSkating datu-markoaren erabilera: `help(IceSkating)`



- **str()**: datu-markoaren egitura bistaratzen du

> **str(datuak)**

```
'data.frame': 10 obs. of 4 variables:
$ adina : num 18 18 19 18 20 19 18 18 18 1
$ aljebra : num 4.2 6.3 5.8 6.8 7.3 8.1 3.5 7.7 6.5 7.2
$ kalkulua: num 6.2 3.3 6.7 5.2 4.1 7.8 5.9 7.1 5.6 7.4
$ gradua : chr "elektronika" "elektrika" "mekanika" "mekanika"
```

- **summary()**: datu-markoaren elementuen laburpena ematen du. Aldagai kuantitatiboak badira minimoa, 1. kuartila, mediana, batezbestekoa, 3. kuartila eta maximoa bueltatzen ditu.

> **summary(datuak)**

| adi na          | aljebra         | kalkulua       | gradua            |
|-----------------|-----------------|----------------|-------------------|
| Min. : 18.00    | Min. : 3.500    | Min. : 3.30    | Length: 10        |
| 1st Qu. : 18.00 | 1st Qu. : 5.925 | 1st Qu. : 5.30 | Class : character |
| Median : 18.00  | Median : 6.650  | Median : 6.05  | Mode : character  |
| Mean : 18.40    | Mean : 6.340    | Mean : 5.93    |                   |
| 3rd Qu. : 18.75 | 3rd Qu. : 7.275 | 3rd Qu. : 7.00 |                   |
| Max. : 20.00    | Max. : 8.100    | Max. : 7.80    |                   |



- **head()**: datu-markoaren lehenengo behaketak bistaratzen ditu

> **head(datuak, n=6)** # defektuz, n=6 (lehenengo 6 behaketak bi staratzen di tu)

|   | adi na | al j ebra | kal kul ua | gradua        |
|---|--------|-----------|------------|---------------|
| 1 | 18     | 4. 2      | 6. 2       | el ektroni ka |
| 2 | 18     | 6. 3      | 3. 3       | el ektri ka   |
| 3 | 19     | 5. 8      | 6. 7       | mekani ka     |
| 4 | 18     | 6. 8      | 5. 2       | mekani ka     |
| 5 | 20     | 7. 3      | 4. 1       | el ektroni ka |
| 6 | 19     | 8. 1      | 7. 8       | mekani ka     |

- **tail()**: datu-markoaren azken behaketak bistaratzen ditu.

> **tail(datuak, n=6)** # defektuz, n=6 (azken 6 behaketak bi staratzen di tu)

|    | adi na | al j ebra | kal kul ua | gradua        |
|----|--------|-----------|------------|---------------|
| 5  | 20     | 7. 3      | 4. 1       | el ektroni ka |
| 6  | 19     | 8. 1      | 7. 8       | mekani ka     |
| 7  | 18     | 3. 5      | 5. 9       | mekani ka     |
| 8  | 18     | 7. 7      | 7. 1       | el ektri ka   |
| 9  | 18     | 6. 5      | 5. 6       | mekani ka     |
| 10 | 18     | 7. 2      | 7. 4       | mekani ka     |



- **names()**: datu-markoaren aldagaien izenak bistaratzen ditu  
> **names(datuak)**  
[ 1 ] "adi na" "alj ebra" "kal kul ua" "gradua"
- **rownames()**: datu-markoaren errenkaden identifikatzaileak bistaratzen ditu  
> **rownames(datuak)**  
[ 1 ] "1" "2" "3" "4" "5" "6" "7" "8" "9" "10"
- **dim()**: errenkada eta zutabe kopurua dituen bektorea sortzen du  
> **dim(datuak)**  
[ 1 ] 10 4
- **dimnames()**: errenkaden identifikatzaileak eta zutabeen izenak dituen zerrenda bat ematen du  
> **dimnames(datuak)**  
[[ 1 ]]  
[ 1 ] "1" "2" "3" "4" "5" "6" "7" "8" "9" "10"  
[[ 2 ]]  
[ 1 ] "adi na" "alj ebra" "kal kul ua" "gradua"



## Datu-marko bateko osagaiak (zutabeak, errenkada, elementuak) erauzi:

- **\$: datumarkoaren\_izena\$zutabearen\_izena**, datu-markoaren zutabe bat lortuko da  
> `datuak$adi na`

```
[1] 18 19 18 20 19 18 18 18 18
```

```
> datuak$al j ebra
```

```
[1] 4.2 6.3 5.8 6.8 7.3 8.1 3.5 7.7 6.5 7.2
```

```
> datuak$kal kul ua
```

```
[1] 6.2 3.3 6.7 5.2 4.1 7.8 5.9 7.1 5.6 7.4
```

- **attach()**: datu-markoaren aldagaiak (zutabeak) aldagai globalak bihurtzen dira, eta aldagaiaren izena erabiltzea nahikoa da bere elementuak lortzeko

```
> attach(datuak)
```

```
> adi na
```

```
[1] 18 19 18 20 19 18 18 18 18
```

```
> al j ebra
```

```
[1] 4.2 6.3 5.8 6.8 7.3 8.1 3.5 7.7 6.5 7.2
```

- **detach()**: datu-markoaren aldagaien ingurune globaletik ezabatzen ditu

```
> detach(datuak)
```



## Datu-marko bateko osagaiak (zutabeak, errenkada, elementuak) erauzi:

- Datu-markoaren 2. zutabea erauzi

> `datuak$aljebra`

```
[1] 4.2 6.3 5.8 6.8 7.3 8.1 3.5 7.7 6.5 7.2
```

> `datuak[2]` # 2. zutabeko norbanako guztiak buelatzen ditu

```
[1] 4.2 6.3 5.8 6.8 7.3 8.1 3.5 7.7 6.5 7.2
```

> `datuak[, 2]` # 2. zutabeko norbanako guztiak buelatzen ditu

```
[1] 4.2 6.3 5.8 6.8 7.3 8.1 3.5 7.7 6.5 7.2
```

> `datuak[, "aljebra"]` # "aljebra" zutabeko norbanako guztiak buelatzen ditu

```
[1] 4.2 6.3 5.8 6.8 7.3 8.1 3.5 7.7 6.5 7.2
```

- Datu-markoaren 2. eta 3. zutabeak erauzi

> `datuak[, c(2, 3)]`

aljebra kalkulua

|    |     |     |
|----|-----|-----|
| 1  | 4.2 | 6.2 |
| 2  | 6.3 | 3.3 |
|    | ... | ... |
| 9  | 6.5 | 5.6 |
| 10 | 7.2 | 7.4 |



## Datu-marko bateko osagaiak (zutabeak, errenkada, elementuak) erauzi:

- Datu-markoaren 2. errenkada erauzi

> [datuak\[ 2, \]](#)

|   | adi na | al j ebra | kal kul ua | gradua      |
|---|--------|-----------|------------|-------------|
| 2 | 18     | 6. 3      | 3. 3       | el ektri ka |

- Datu-markoaren lehenengo 3 errenkadak erauzi

> [datuak\[ 1: 3, \]](#)

|   | adi na | al j ebra | kal kul ua | gradua        |
|---|--------|-----------|------------|---------------|
| 1 | 18     | 4. 2      | 6. 2       | el ektroni ka |
| 2 | 18     | 6. 3      | 3. 3       | el ektri ka   |
| 3 | 19     | 5. 8      | 6. 7       | mekani ka     |

- Datu-markoaren lehenengo 8 errenkadak ezabatu

> [datuak\[ - \(1: 8\), \] # lehenengo zortzi errenkada \(norbanako\) ezabatu](#)

|    | adi na | al j ebra | kal kul ua | gradua    |
|----|--------|-----------|------------|-----------|
| 9  | 18     | 6. 5      | 5. 6       | mekani ka |
| 10 | 18     | 7. 2      | 7. 4       | mekani ka |



## Datu-marko bateko osagaiak (zutabeak, errenkada, elementuak) erauzi:

- Datu-markoaren 3. ikaslearen aljebraiko kalifikazioa erauzi  
`> datuak[3, 2] # edo datuak$algebra[3]`  
[1] 5.8
- Datu-markoaren 19 urte edo gehiago dituzten ikasleen zutabe guztiak erauzi  
`> datuak[datuak$adi_na >= 19, ]`  
adi na al j ebra kal kul ua gradua  
3 19 5.8 6.7 mekani ka  
5 20 7.3 4.1 el ektronika  
6 19 8.1 7.8 mekani ka
- Datu-markoaren 18 urte baino gehiago dituzten ikasleen kalkuluko kalifikazioa erauzi  
`> datuak$kal_kul_ua[datuak$adi_na > 18]`  
[1] 6.7 4.1 7.8
- Datu-markoaren elektrikako graduko ikasleen adina  
`> datuak$adi_na[datuak$gradua == "el ektri ka"]`  
[1] 18 18



## Datu-marko bateko osagaiak (zutabeak, errenkada, elementuak) erauzi:

- Datu-markoaren 19 urte edo gehiago dituzten ikasleen posizioa  
`> whi ch(datuak$adi na>=19)`  
[1] 3 5 6
- Datu-markoaren 19 urte edo gehiago dituzten ikasle kopurua  
`> length(whi ch(datuak$adi na>=19))`  
[1] 3
- Datu-markoaren lehengo bi zutabeen batazbestekoa  
`> apply(datuak[, 1: 2], MARGIN=2, FUN=mean) # MARGIN: 1: errenkadak, 2: zutabeak`  
adi na al j ebra  
18. 40 6. 34



## Datu-marko bateko osagaiak (zutabeak, errenkada, elementuak) erauzi:

- Datu-markoaren 18 urte baino gehiago dituzten ikasleen artean mekanikako graduokoen informazioa  
> `datuak[datuak$adi_na>18 & datuak$gradua=="mekani ka", ]`

| adi na | al j ebra | kal kul ua | gradua         |
|--------|-----------|------------|----------------|
| 3      | 19        | 5. 8       | 6. 7 mekani ka |
| 6      | 19        | 8. 1       | 7. 8 mekani ka |
- Datu-markoaren 18 urte baino gehiago edo elektronikako graduokoak diren ikasleen informazioa  
> `datuak[datuak$adi_na>18 | datuak$gradua=="el ektroni ka", ]`

| adi na | al j ebra | kal kul ua | gradua             |
|--------|-----------|------------|--------------------|
| 1      | 18        | 4. 2       | 6. 2 el ektroni ka |
| 3      | 19        | 5. 8       | 6. 7 mekani ka     |
| 5      | 20        | 7. 3       | 4. 1 el ektroni ka |
| 6      | 19        | 8. 1       | 7. 8 mekani ka     |
- Datu-markoaren 18 urte baino gehiago edo elektronikako graduokoak diren ikasle kopurua  
> `length(which(datuak$adi_na>18 | datuak$gradua=="el ektroni ka"))`  
[1] 4



# 1.5. Grafikoak




- plot()

```
plot(x, y=NULL, type="p", xlim=NULL, ylim=NULL, log="", main=NULL, sub=NULL,
 xlab=NULL, ylab=NULL, axes=TRUE, ...)
```

```
> x <- c(15, 18, 17, 16, 12, 12, 14, 19, 21, 23, 19, 16)
```

```
> y <- c(19, 16, 17, 18, 21, 17, 17, 14, 8, 7, 15, 16)
```


```
> plot(x, y, main="Titulua", xlab="x-ardatza", ylab="y-ardatza")
```



- curve()

```
curve(expr, from=NULL, to=NULL, n=101, add=FALSE, type="l", xname="x", xlabel=xname,
 ylabel=NULL, log=NULL, xlim=NULL, ...)
```


```
> curve(x^2, from=-5, to=5, main="Parabola", xlabel="x", ylabel="y")
```



- hist()

```
hist(x, breaks = "Sturges", freq = NULL, probability = !freq, include.lowest = TRUE,
right = TRUE, density = NULL, angle = 45, col = "lightgray", border = NULL,
main = paste("Histogram of", xname), xlim = range(breaks), ylim = NULL, xlab =
xname, ylab, axes = TRUE, plot = TRUE, ...)
```


```
> speed<-c(4, 4, 7, 8, 9, 10, 10, 11, 12, 12, 13, 13, 14, 14, 15, 15, 16, 17, 18, 18, 19, 19, 20, 22, 23, 25)
> hist(speed, breaks=seq(0, 25, 5), main="Histograma", xlab="speed", ylab="maiztasuna")
```



- barplot()

```
barplot(height, width = 1, space = NULL, names.arg = NULL, legend.text = NULL,
beside = FALSE, horiz = FALSE, density = NULL, angle = 45, col = NULL, border =
par("fg"), main = NULL, sub = NULL, xlab = NULL, ylab = NULL, xlim = NULL, ...)
```


```
> barplot(table(c(1, 1, 2, 3, 3, 4, 4, 5, 5, 5, 5)), main="Barra diagrama", xlab="x", ylab="y")
```



- pie()

```
pie(x, labels = names(x), edges = 200, radius = 0.8, clockwise = FALSE, init.angle =
if(clockwise) 90 else 0, density = NULL, angle = 45, col = NULL, border = NULL,
lty = NULL, main = NULL, ...)
```


```
> pie(table(c(1, 1, 2, 3, 3, 4, 4, 5, 5, 5, 5)), main="Sekture diagramma")
```



- boxplot()

```
boxplot(x, . . ., range = 1.5, width = NULL, varwidth = FALSE, notch = FALSE, outline = TRUE, names, plot = TRUE, border = par("fg"), col = "lightgray", log = "", pars = list(boxwex = 0.8, staplewex = 0.5, outwex = 0.5), ann = !add, horizontal = FALSE, add = FALSE, at = NULL)
```

```
> x<-c(17, 23, 21, 36, 21, 18, 19, 22, 35, 20, 25)
> boxplot(x, horizontal=TRUE, col="blue")
```



# 1.6. Funtzioak



- **function()**

```
funtzioarenIzena <- function(arg_1, arg_2, ...) { Funtzioaren gorputza }
```

```
karratu <- function(x)
{
 x^2
}
> karratu(4) # funtzi oa 4 balioan ebal uatu
[1] 16
```



# 1.7. Lan direktorioa



## Lan direktorioa

- Fitxategi guztiak, bestela zehaztu ezean, lan-direktoriotik irakurri eta lan-direktorioan gordeko dira.
- Lan-direktorioa zehaztuta badago, datu-fitxategiak lan-direktoriotik R inguruau irakur daitezke fitxategiaren izena erabiliz soilik, fitxategiaren direktorioaren bidea aurritzki gisa gehitu gabe.
- Gainera, R-n sortutako diagrama, datu-markoa edo beste objektu bat gordetzen den bakoitzean, lan-direktorio gisa ezarrita dagoen karpetan gordeko dira.
- **Lanean ari garen lan direktorioa jakiteko**

Kontsolan idatzi:

> `getwd()`




- Lan direktorioa aldatzeko aukera desberdinak daude:


### I.) Konsola erabiliz:

> `setwd("~/R/Praktika")`


### II.) Tools → Global Options → Browse:



### III.) Session → Set Working Directory → Choose Directory (edo Ctrl+Shift+H teklen konbinazioa)



## IV.) “File” fitxa: 1. [...] direktorioa aukeratu, 2. Set As Working Directory → Choose Directory



# 1.8. Paketeak



## Paketeak

- R-ko paketeak R-ko funtzioen, lagin-datuuen eta konpilatutako kodeen bilduma dira.
- R-ko paketeak *Comprehensive R Archive Network* (CRAN) izeneko software biltegi zentralean gordeta daude
- R-ko paketeak instalatzen direnean, R inguruneko “library” izeneko direktorioak instalatuko dira.




## Pakete bat instalatu

- Pakete baten instalazioa baten bakarrik egin behar da. Bi modu daude pakete bat instalatzeko:

I. Kontsola erabiliz: > `install.packages("paketearen_izena")`

II. “Packages” fitxa erabiliz:

- “Install” botoian sakatu
- Instalatu nahi den paketearen izena idatzi
- Behean agertzen den “Install” botoia sakatu




## Pakete bat kargatu

- Deskargatu den pakete bat erabiltzeko paketea kargatu egin behar da. Paketea kargatzea sesio bakoitzeko egin behar da. Pakete bat kargatzeko bi aukera daude:

I. Kontsola erabiliz: > library(paketearen\_izena)

II. “Packages” fitxa erabiliz:

- Nahikoa da kargatu nahi den paketea aukeratzea



| Name                                        | Description                                              | Version | Actions                                                                                                                                                                     |
|---------------------------------------------|----------------------------------------------------------|---------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>User Library</b>                         |                                                          |         |                                                                                                                                                                             |
| cellranger                                  | Translate Spreadsheet Cell Ranges to Rows and Columns    | 1.1.0   |       |
| cli                                         | Helpers for Developing Command Line Interfaces           | 3.2.0   |       |
| crayon                                      | Colored Terminal Output                                  | 1.5.0   |       |
| ellipsis                                    | Tools for Working with ...                               | 0.3.2   |       |
| fansi                                       | ANSI Control Sequence Aware String Functions             | 1.0.2   |       |
| glue                                        | Interpreted String Literals                              | 1.6.2   |       |
| hms                                         | Pretty Time of Day                                       | 1.1.1   |    |
| lifecycle                                   | Manage the Life Cycle of your Package Functions          | 1.0.1   |   |
| magrittr                                    | A Forward-Pipe Operator for R                            | 2.0.2   |   |
| <input checked="" type="checkbox"/> moments | Moments, cumulants, skewness, kurtosis and related tests | 0.14    |   |
| pillar                                      | Coloured Formatting for Columns                          | 1.7.0   |   |
| pkgconfig                                   | Private Configuration for 'R' Packages                   | 2.0.3   |   |
| prettyunits                                 | Pretty, Human Readable Formatting of                     | 1.1.1   |   |



# 1.9. Fitxategi batetik datuak irakurri




## TXT fitxategiak irakurri:

- File → Import Dataset → From Test (base)...

edo

“Environment” fitxan → Import Dataset  
→ From Test (base)...


- Aukeratu irakurri nahi den .txt fitxategia.



## TXT fitxategiak irakurri:

- Aukeratu irakurri nahi den .txt fitxategia.  
Honako leihoa agertuko da:
- Name:** data markoari esleituko zaion izena
- Heading:** aukeratu YES datuek izenburua badaukate
- Separator:** Tab aukeratu datuak tabuladore bidez banatuta badaude
- Kontsolan honakoa agertuko da:  

```
> datuak <- read.delim("~/R/Praktika/Datuak.txt")
> View(datuak)
```



## TXT fitxategiak irakurri:

- **Kontsola erabiliz:**

```
read.table(file, header = FALSE, sep = "", quote = "\"\"", dec = ".", numerals =
c("allow.loss", "warn.loss", "no.loss"), row.names, col.names, as.is =
!stringsAsFactors, na.strings = "NA", colClasses = NA, nrow = -1, ...)
```

- **file:** irakurri nahi den fitxategiaren izena.
- **header=TRUE:** zutabeek izenburua dutela adierazteko.
- **sep:** karaktere banatzailea: hutsunea (" "), koma (", "), puntu eta koma (" ; ") eta tabuladorea (" /t ")
- Irakurri nahi den fitxategia ez badago lan-direktorioan, fitxategira heltzeko bide osoa jarri behar da:  
`> dataframe_izena<- read.table("C:/Users/Documents/R/Praktika/Datuak.txt",  
header=T, sep="/t")`
- Irakurri nahi den fitxategia lan-direktorioan badago, fitxategiaren izenarekin nahikoa da:  
`> dataframe_izena<- read.table("Datuak.txt", header=T, sep="/t")`



# 1.10. Datu-markoak fitxategi batean gorde



## TXT fitxategi batean gorde:

### Kontsola erabiliz:

```
write.table(x, file = "", append = FALSE, quote = TRUE, sep = " ", eol = "\n", na =
"NA", dec = ".", row.names = TRUE, col.names = TRUE, qmethod =
c("escape", "double"), fileEncoding = "")
```

- **file**: irakurri nahi den fitxategiaren izena.
- **header=TRUE**: zutabeek izenburua dutela adierazteko.
- **sep**: karaktere banatzailea: hutsunea (" "), koma (", "), puntu eta koma ("; ") eta tabuladorea (" /t ")
- Fitxategiaren izena bakarrik idazten bada, fitxategia lan-direktorioan gordeko da:  
`> write.table(datuak, "datuak4.txt", header=T, sep="/t")`
- Fitxategiaren izenaren aurrean fitxategia gorde nahi den direktorioaren bide osoa jar daiteke:  
`> write.table(datuak, "C:/Users/Documents/Praktika/datuak4.txt",  
header=T, sep="/t")`

